

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure erloju itzultzailea aurrera eramán ahal izateko, tamaina txikiko **pabiloi bat alokatuko dugu**, hasteko. Maila oneko **makinaría** erosiko dugu, eskainiko ditugun erlojuak kalitate onekoak izateko.

Teknologiari dagokionez, saiatuko gara beti ordenagailurik onenak edukitzen, erlojurako sortuko dugun sistema eragileak huts egin ez dezan. **Aseguru pribatu** bat kontratatuko dugu, gure baliabide fisikoak babesteko.



Eskainiko dugun **erlojua inteligentea** da. Orain arte, erlojuek ez zuten itzultzeko gaitasuna, hau da, lehen existitzen ez zen sistema bat eramango du. Gure trebetasun guztiak batuko ditugu, beharrak asetzen dituen sistema bat sortu ahal izateko.

Giza baliabideen arloa, langileak aukeratuz eta kontratatuz arduratzen da, gainera, aukeratutako langileak prestatuko ditugu gure langile guztiak kalitatezkoak izateko. Horretaz aparte, enpresaren sail honek, langileen esperientzia, kontaktua, abileziak...etab. ezagutu behar ditu. Giza baliabidean lan egiten duten langileak, administrazio eginkizunak eramango dute aurrera ere, beraz kontratuak, nominak etab. nola egiten diren ikasi beharko dute.



Finantza- baliabidei (edo inbertsio arloa) dagokionez, enpresa guztietan behar beharrezko den arlo bat da eta gure enpresak beharrezko dituen funtsak betetzeaz eta lortzeaz gain, gure inbertsio politika ere antolatuko da. Laburbilduz, finantza-arloan, enpresaren dirua nola kudeatu erabakiko dute gure etekinak ahalik eta handienak izateko momentu guztietan, beraz **erabaki egokienak** hartzea funtsezkoa ikusten dugu.